

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

SAMANIEGOKO UDALA

Lurzatiak lagatzea Samaniegoko udalerriko VI-10.022 ehiza esparrua, Samaniego izenekoa, berritzea

Samaniegoko udalbatzak, 2019ko apirilaren 30eko osoko bilkuran, erabaki zuen Samaniegoko udalerriko VI-10.022 ehiza esparru pribatua berritzea.

Ehiza esparru horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera horri, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten.

Horretarako, iritziko da ezen iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik hasita 15 egun baliouduneko epean horren kontrako idazkirik aurkezten ez dutenek baimen esangabea ematen dutela, eta ulertuko da udal honek baimena daukala ezarritako epean kontra agertzen ez direnen lurzati eta finka guztiak sartzeko ehiza esparru horretan.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Samaniego, 2019ko apirilaren 30a

Alkatea

CRISTÓBAL ZUÑEDA BERGANZO